



URRETXU ETA ZUMARRAGAKO GABONETAKO XXXII. IDAZLAN LEHIAKETA 2020

- 1.- Zumarragan edo Urretxun ikasten duten eskola-umeek har dezakete parte lehiaketa honetan.
- 2.- Bi talde bereiziko dira: A taldea: LHko 3. eta 4. mailakoak
B taldea: LHko 5. eta 6. mailakoak
- 3.- Lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkez dezake.
- 4.- Lanak euskaraz izango dira, eta **gaiak honako hauek:**

A taldean: **"Olentzerok inoiz baino lan handiagoa izan zuen urte hartan."**
B taldean: **"Egoera zailenetan ere, ez da itxaropena galdu behar."**
- 5.- Neurri aldetik, arau hauek gorde beharko dira:
A taldean: orrialde bat gehienez
B taldean: bi orrialde gehienez
- 6.- Lehiaketan parte hartu ahal izateko, idazlana idatzita dagoen orrian barrenean datu huez azaldu beharko dira: izen-abizenak, ikastetxea, maila, helbidea eta telefonoa.
- 7.- Idazlanak Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean edo Urretxuko Aizpurunea kultur etxean **aurkeztu beharko dira, azaroaren 27a bitartean, hau barne.**
- 8.- Epaimahaiaren **erabakia 2020ko abenduaren 18an**, arratsaldeko 6etan, Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean ezagutaraziko da, eta ekitaldi berean **sari banaketa** egingo da, beti ere osasun egoerak ahalbidetzen badu.
- 9.- Epaimahaia Zumarraga eta Urretxuko Kultura Batzordeek izendatuko dute.
- 10.- Sariak honela banatuko dira:
Bi taldeetan: 1. saria: diploma eta opariak
2. saria: diploma eta opariak
3. saria: diploma eta opariak
- 11.- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horrela erabakiz gero, sariak eman gabe gera litezke.
- 12.- Saritutako lanak bi udalen webetan jarriko dira ikusgai.
- 13.- Sarituek bere lana berreskuratu nahi izanez gero urtarrilaren 31 arte izango dute aukera.